

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Ebazpena: R 14/2013

Espedientea: 31/2010

Vitoria-Gasteizen, 2013ko uztailaren 24an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekide zituelarik, honako hau

ERABAKI DU

1 ERAKUNDEaren (IFZ: LZZZZZZZ) zerga-egoitza dela-eta sortutako gatazkaren inguruan, planteatua berau Estatuko Zerga Administrazioaren Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eta Arbitraje Batzorde honetan 31/2010 espediente-zenbakiarekin izapidetua.

AURREKARIAK

1. Aztergai dugun gatazka Estatuko Zerga Administrazioako Agentziako (EZAA) zuzendari nagusiak planteatu zuen idazki bidez. Idazkiak, 2010eko abenduaren 22ko datadunak, hurrengo eguneko, hilak 23, sarrera-erregistroa du Arbitraje Batzordean, eta haren arabera, 1 ERAKUNDEA erakundea (IFZa LZZZZZZZ zk. duena eta aurrerantzean 1 ERAKUNDEA edo "erakundea" deitua) 2005eko maiatzaren 19ko eskritura publikoz eratu zen, 1 IZEN-ABIZENAK notarioaren aurrean eta egiesleak 2 IZEN-ABIZENAK eta 3 IZEN-ABIZENAK izanik, azken bi horiek orduko helbidea Araban zeukan 2 ERAKUNDEAREN bazkide eta administratzaile bakarraren ordezkari gisa. Kargu horretarako, 2 ERAKUNDEAK 2 IZEN-ABIZENAK izendatu zuen. Erakundeak A Coruña-ko 1 UDALERRIAN kokatu zituen sozietate- eta zerga-egoitzak, 1 HELBIDEAN. Bilbon 2009ko abuztuaren 3an egiletsitako eskritura publiko bidez, erakundearen sozietate-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

egoitza Bizkaiko 2 UDALERRIra aldatu zen, 2 HELBIDEra, eta hilaren 6an zerga-egoitza ere aldatu zen.

Gatazka planteatu aurretik, jarduketa administratibo hauek egin ziren:

- 2010eko ekainaren 16an, EZAAREN Euskadiko Ordezkaritza Bereziak erakundearen zerga-egoitza egiaztatzeko prozedurari ekitea erabaki zuen.

- 2010eko irailaren 27an EZAAREN Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusten den helbide-aldaketarako prozedura hasi zuen, eta proposatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari 1 ERAKUNDEAREN zerga-egoitza Galiziatik Bizkaira aldatzea, eta aldaketak atzeraeragina izatea 2005eko maiatzaren 19tik 2008ko abuztuaren 6ra bitartean; hau da, erakundearen eraketa-datatik haren zerga-egoitza Bizkaira aldatu zen arte. Proposamena 2010eko irailaren 27an helarazi zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari.

- Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan jasotzen den bi hilabeteko epea igarota, eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuz onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak (EIABE) 13 artikuluan ezarritakoaren haritik, EZAAREN ondorioztatu zuen Bizkaiko Foru Aldundia ez zegoela ados zerga-egoitza aldatzeko proposamenarekin.

- EIABEko 13.2 artikuluan aurreikusten denari helduz, EZAAREN gatazka hau planteatu zuen aurreko epea bete zenetik hilabetera.

Gatazka planteatzeko idazkiaren amaieran, EZAAREN eskatzen zion Arbitraje Batzordeari deklara zezala “1 ERAKUNDEAREN 2005eko maiatzaren 19tik 2009ko abuztuaren 6ra arte izan duela zerga-egoitza Bizkaiko 2 HELBIDEAN; hau da,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

erakundea eratu zenetik bertatik, eta soilik zerga-egoitza Bizkaira aldatu zuenetik -2009ko abuztuak 6- ”.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Ekonomia eta Finantza Saileko Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak erantzun zion gatazka-planteamenduari 2013ko urtarrileko idazki batez, Arbitraje Batzordean hurrengo egunean, hilak 17, sartua berau. Idazkian azaldutako egitezko aurrekariei eta Zuzenbidezko Oinarriei helduz, eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari deklaratu zezala “erakundearen zerga-egoitza erregimen erkideko lurraldean zegoela”; ulertzekoa denez, eskaera horretan Aldundia eztabaidagai dagoen denborartartean ari zen, 2005eko maiatzaren 19tik 2009ko abuztuaren 5era bitartekoaz, alegia.

3. Espedientea alderdiei ikustera emateko izapidean honako hauek aurkeztu zituzten alegazioak: Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko apirilaren 8ko idazkiz, Arbitraje Batzordean hurrengo eguneko, hilak 9, sarrera-erregistroduna berau; EZAAk 2013ko apirilaren 29ko idazkiz, idazkiak hurrengo eguneko, hilak 30, Posta Zerbitzuko data-zigilua zeukalarik; eta 3 ERAKUNDEAK (IFZ: LZZZZZZZ), 1 ERAKUNDEA xurgatu zuela-eta haren ondorengo gisa jardunez, 2013ko apirilaren 29ko alegazio-idazki batez, Posta Zerbitzuko data-zigilua horixe bera zelarik.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Gatazka honetan zehaztu behar da zer zerga-egoitza izan zuen 1 ERAKUNDEAK bere eraketa-egunetik (2005eko maiatzaren 19a) zerga-egoitza Bizkaira aldatu aurreko egunera arte (2009ko abuztuaren 5a). Auzia ebazteko, Ekonomia Itunaren 43.Lau artikuluko xedapen hauetara jo beharra dago:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

“Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren mendean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa eta zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan”.

EZAAREN iritziz -eta horri dagokionez Bizkaiko Foru Aldundiak uste duenez bestela- aztergai dugun denbora-tartean 1 ERAKUNDEAREN negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza ez zeuden kokaturik haren sozietate-egoitzan, A Coruñaiko 1 UDALERRIKO 1 HELBIDEAN alegia, Bizkaiko 2 HELBIDEAN baizik.

2. Aurreko beste ebazpen batzuetan, abiapuntuko irizpidetzat izan dugu “administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza” deritzon nozioa kontzeptu juridiko zehaztugabe bat dela, hura gehiago zedarritzekotan beharrezkoa delarik kasuan kasuko inguruabar guztiak aintzat hartzea. Hala jokatu da, besteak beste, honako ebazpen hauetan: R3/2012, 2012ko martxoaren 30ekoa (31/2008 espedientea); R7/2012, 2012ko maiatzaren 11koa (36/2008 espedientea); R13/2012, irailaren 28koa (9/2010 espedientea) eta R18/2012, 2012ko abenduaren 27koa (19/2010 espedientea).

3. Gatazka planteatzeko idazkiaren 5. Zuzenbidezko Oinarrian EZAAK, lehenik eta behin, xehetasunez azaltzen ditu bere ikuskapen-organoek zerga-egoitza

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

egiaztatzeko egindako jarduketan eginbideak. Zehazki, jarduketak honako hauek izan ziren:

- 1 ERAKUNDEAREN 2 HELBIDEKO zerga-egoitzara egindako bisita, 2010eko ekainaren 21ean,
- Erakundearen lehengo zerga-egoitzara (A Coruñaiko 1 UDALERRIko 1 HELBIDEA) egindako bisita, 2010eko ekainaren 21ean, eta
- 1 ERAKUNDEA eta 2 ERAKUNDEA partaide dituen SOZIJETATE-TALDEA Taldearen Madrilgo bulegoetara (3 HELBIDEA) egindako bisita, 2010eko irailaren 28an.

Azalpen horiek emanik, EZAAK laburbiltzen du idazki bereko 19. orrialdean eta hurrengoetan zer arrazoi direla-eta uste duen erakundearen kudeaketa administratiboa Bizkaian egin zela eraketatik bertatik. Labur-zurrean hauexek dira argudioak:

1. 1 ERAKUNDEAREN eta SOZIJETATE-TALDEKO partaide den 4 ERAKUNDEAREN (idazkian 5 ERAKUNDEA aipatzen da, baina okerra da) arteko zerbitzuen errentamendu-kontratu batean hala xedaturik, bigarren erakundeak proiektua burutzeko beharrezkoak ziren kudeaketa-, administrazio- eta aholkularitza finantzarioko zerbitzuak emango zituen.
2. 4 IZEN-ABIZENAK(e)k, 2 ERAKUNDEAREN ordezkaria eta administratzaile bakarra izateagatik 2 HELBIDERAKO ikuskapen-bisita hartu zuenak, adierazpen hauek egin zituen:
 - Kontabilitatearen kudeaketa Bizkaian egiten zen gehienbat, eta probintzia berean zaintzen dira kontabilitate-liburuak, bertan egiten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

eta zaintzen baitira urteko kontuak, A Coruñako helbidera egindako bisitan egiaztatu zen bezala.

- Fakturak Bizkaian jasotzen dira, zuzenean nahiz Galiziatik bidalita, haien ordainketaren kudeaketa Bizkaian egiten baita, probintzia horretan irekitako kontu baten bitartez, eta ondoren artxibatu eta zaindu egiten dira, A Coruñako helbidera egindako bisitan egiaztatu zen bezala.
- Egiten diren fakturak Bizkaitik igortzen dira, diruzaintza-saila bertan irekitako kontu batez baliatzen baita horiek kobratzeko, eta ondoren artxibatu eta zaindu egiten dira.
- Erosketa-eskaerak egiteko, 2 ERAKUNDEAK, eta oro har SOZIJETATE-TALDEA Talde osoak, eredu berberak erabiltzen dituzte.
- BEZaren erregistro-liburuak era zentralizatuan eramaten dira, 2 UDALERRIAN, eta hala egiaztatu zen A Coruñako helbiderako bisitan.

3. Sozietateak ez du berezko langilerik.

4. Sozietateak ez du ez bere titulartasuneko ez errentan hartutako lokalik administrazio-kudeaketarako.

5. Erakundeak bere jardunean erabiltzen dituen banku-kontuak Bizkaiko sukurtsaletan irekirik daude.

EZAAREN arabera, bestalde, jarraian zerrendatzen diren datuek adierazten dute 1 ERAKUNDEA eratu zenetik haren benetako zuzendaritza-jarduera Bizkaitik gauzatu zela:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

1. Erakundearen bazkide bakarra den 2 ERAKUNDEAK pertsona fisiko bat, 2 IZEN-ABIZENAK dituen eta bizilekua Bizkaian duena, izendatu zuen bere ordezkari administrazio-zeregin horietarako.

Zehazkiago, 2 ERAKUNDEAREN bazkide bakarra eta SOZIJETATEEN TALDEAREN buru den 6 ERAKUNDEAK pertsona fisiko bat, 4 IZEN-ABIZENAK dituen eta bizilekua Bizkaian duena, izendatu zuen bere ordezkari administrazio-zeregin horietarako.

2. Bere jardunean, 4 ERAKUNDEKO pertsonalak (idazkian 5 ERAKUNDEA aipatzen da, oker aipatuta) ez zuen zuzendaritza-lanik egiten, teknikoa baizik.

3. Finantzazioaren inguruko erabakiak beti hartu dira Bizkaian.

4. Inbertsio-erabaki guztiak 2 IZEN-ABIZENAK(e)k hartu ditu, bera baitzen 1 ERAKUNDEAREN ordezkaria. Ondoriozko kontratu guztiak "giltza eskura" deritzen motakoak izan dira; hau da, kontratua egindakoan eta obra jaso arte bezeroak (erakundea) ez du kontratuaren helburuarekin zerikusia duen inolako jarduerarik egiten. Parkearen sustapen- eta eraikuntza-jarduera 2 IZEN-ABIZENAK(e)k gainbegiraturik egiten da.

5. 2 ERAKUNDEAREN Galiziako ordezkariak onartzen du SOZIJETATE-TALDEAREN kide den 7 ERAKUNDEAREN kudeaketa ez dela berak Galizian duen zerga-egoitza. [Geroago azalduko da alegazio honen zergatia].

6. 2010eko irailaren 28an Madrilgo bulegoetara egindako bisitan 5 IZEN-ABIZENAK, kontrol- eta kudeaketa-arduraduna 2 ERAKUNDEKO parkeen sustapen eta salmentarako unitatean, adierazi zuen parkeen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

sozietate titularrak, behin parkea eraikita, 2 ERAKUNDEaren lekuan subrogatu baino ez direla egiten, era horretan parkea akzioen eskualdatze soil baten bidez saldu ahal izateko.

4. Planteamendu-idazkiko argudioak azalduta daude Zuzenbidezko Oinarri hauetan:

A.- Lehen argudioan (6. Z.O.) deskribatzen da nola aldatu zen 7 ERAKUNDEaren helbidea, ordura arte 1 ERAKUNDEarena baitzen, aurreko atalean aipatua azken hori. Prozedura horren barruan, EZAAK Galizian duen Ordezkaritza Bereziak ondorioztatu zuen, Eskualdeko Ikuskapen Unitatearen txosten batean, helbide hura ez zela zuzena, eta horren zantzu gisa aipatzen zen, besteak beste, SOZIJETATE-TALDEA taldearen Galiziako ordezkaritza onartu zuela aipatutako erakundearen kudeaketa- eta zuzendaritza-jarduerak ez zirela horren zerga-egoitzan egiten. Zerga-egoitzaren Galiziatik Bizkaiko Foru Aldundiari planteaturik, Foru Erakundeak baieztatu erantzuna eman zuen. EZAAREN iritziz, "kontuan harturik sozietate hauen guztien kasuan Bizkaia lekualdatzeko arrazoiak berberak direla, bereziki deigarria da Bizkaiko Foru Aldundiak -espediente honen kasuan ez bezala- zerga-egoitzaren lekualdaketa baietsi izana".

B.- Bere idazkiko 7. Zuzenbidezko Oinarrian, EZAAK, lehenengo eta behin, 22 sozietate anonimo aipatzen ditu, guztiek dutelako izentzat IZEN BERBERA (1 ERAKUNDEAREN eta 2 ERAKUNDEAREN izena, hain zuzen ere), bakoitzari tokian tokiko toponimo erantsita, eta -Agentziak dioenez- denak aldatu zirelako lurralde erkidetik foru-lurraldera 2009-2010 bitartean. EZAAK baieztapen hauek egiten ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

“Ohartzekoa da sozietate horien guztien egoera desberdina datekeen arren, desberdina izateagatik haien helburu sozialaren betetze-maila eta, beraz, sozietate bakoitzaren beharrak eurak ere (finantzazioa, inbertsioa, ordezkapena...), sozietateek ez dutela horren araberako erabakirik hartzen (sorkuntza, helbideratzea, ordezkapena, dibidendu pasiboen ordainketa, etab.), eta era horretan bakoitzaren egoera juridikoa (zerga- nahiz merkataritza-alorrekoa) kasuan kasuko errealitatera egokitu; aitzitik, erabakiak, berberak denentzat, bazkide bakar eta administratzaileak hartzen ditu Bizkaian.

Kudeaketa administratiboa toki batean edo bestean kokatzeko arrazoiei dagokienez, ez dira sozietateen helbidea aldarazteko adina aldatu, eta bestalde, ez da pentsatzekoa sozietateen egitezko zuzendaritza aldatu denik. Azaldutakoak ideia bat sendotu baino ez du egiten, eta ideia hori da Bizkaian erabaki orokor batzuk hartu direla -batik bat zerga-egoitza Bizkaira aldatzekoa- hainbat sozietaterentzat, bakoitzaren benetako egoera eta beharrak gorabehera.

Hala, zerga-egoitza Bizkaira aldatzea ez zen izan, inondik ere, egiazko aldaketa baten ondorioa; helburu zuen, ordea, sozietateen egoera juridikoa sozietateak eurak eratu zireneko errealitatera egokitzea”.

Jarraian, EZAAk adibidetzat aipatzen ditu idazkian zenbait sozietateren kasuan izandako eraketa-egintzak, helbide-aldaketak, ahalordeen egilespenak eta dibidendu pasiboen ordainketak, guztiak ondorioak izan dituztenak IZEN BERBEREko sozietate-multzoentzat, parke eolikoen ustiatzaileentzat, hain zuzen ere.

C.- Azkenik, gatazka planteatzeko idazkiko 8. Zuzenbidezko Oinarrian EZAAk gogora dakartza, aurrekari gisa, Arbitraje Batzorde honek 2008ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

azaroaren 24an eta 2009ko urtarrilaren 28an emandako bi ebazpenak (1/2008 eta 1/2009, hurrenez hurren), 1/2008 espedienteari buruzkoa lehena eta 2/2008 espedientearen harira bigarrena. Ebazpen horietan, Arbitraje Batzordeak iritzi zuen zerga-egoitza lurralde erkidean zuten IZEN BERBEREko erakundeen kudeaketa administratiboa eta haien negozioen zuzendaritza-jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan gauzatzen zirela, eta horrenbestez, haien helbidea Bizkaian zegoela.

Bizkaiko Foru Aldundiak errekurtsua aurkeztu zuen bi ebazpenen aurka, baina Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak ezetsi egin zuen 155/2009 eta 86/2009 errekurtsoen epaietan, 2010eko otsailaren 4an eta ekainaren 16an hurrenez hurren emandakoetan, alegia.

5. Bizkaiko Foru Aldundiak, 2013ko urtarrilaren 16ko idazkian aurkeztu zituen alegazioak argudiatzeko, Foru Ogasuneko Ikuskaritzako eginbide bateko egitezko aurrekariak baliatu zituen. Idazkiari erantsitako eginbide horretan (“1 ERAKUNDEAREN EGINBIDEA”), 2010eko abenduaren 16an 1 ERAKUNDEari 2 HELBIDEan egindako bisitaren emaitzak dokumentatzen dira. Hona hemen, laburbilduz, aipatu aurrekariok:

- Erakundearen bazkidea den 2 ERAKUNDEAK, haren administratzaile bakarra ere badenak, Araban eduki zituen sozietate- eta zerga-egoitza 2010eko ekainaren 25era arte, orduan Bizkaiko Foru Lurraldera aldatu baitziren. Administratzailearen ordezkariak, 2 IZEN-ABIZENAK(e)k, Parkeen Sustapen eta Salmentarako Zuzendari kargua du, eta 2010eko uztailaren 1era arte lanlekua Araban izan zuen, ordutik aurrera Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatu zuten eta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Akziodunen Batzar Nagusiak erakundearen sozietate-egoitzan egin izan dira; hau da, sozietate-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatu arte lurralde erkidean egiten ziren.

- Sozietateko kudeatzailea 6 IZEN-ABIZENAK da. Lehenago 7 IZEN-ABIZENAK izan zen, 2008ko ekainaren 30era arte 4 ERAKUNDEko enplegatua eta, harrezkero, 4 ERAKUNDEA xurgatu zuen 2 ERAKUNDEkoa. Pertsona horietatik batak zein besteak A Coruñan zuten lanlekua.

- Erakundearen ahalordedunek hainbat tokitan dute lanlekua, lurralde erkidean nahiz Bizkaiko Lurralde Historikoan.

- Erakundearen sozietate-egoitza Bizkaira aldatu zen arte, kontabilitate-liburuak lehengo egoitzan zeuden, 1 UDALERRIan.

- Urteko kontuak sozietate-egoitzan artxibaturik daude.

- Erakundeak irekita dauka banku-kontu bat Bizkaiko Lurralde Historikoan.

- Ez du fakturarik egin, oraindik ez duelako bere jarduera hasi.

- Jasotako fakturak eta gainerako korrespondentzia sozietate-egoitzan jasotzen dira, eta frogagiritako asko Madrilen daude, hantxe egiten baitu kanpoko kontu-auditoreak landa-lana.

- BEZaren liburuak SOZIETATEEN TALDEAK erabiltzen duen kontabilitate-sistema integratutik elikatzen dira; liburuok, beraz, lurralde bakoitzean eginkizun hori eta dagokion baimena dituzten pertsonak sartutako kontabilitate-idazpenekin osatzen dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Erakundeak ez du berezko langile kontrataturik.

- Erakundeak ez du ez bere jabetzako ez errentan hartutako lokalik, baina bai eskubideak zenbait ondasun higiezin gainean, kokatuak horiek parke eolikoa dagoen tokian, Galizian, higiezinok direlarik erakundeak daukan ibilgetu guztia.

- Negoziorako erabaki estrategikoak (teknikoak, ekonomiko-finantzarioak, juridikoak eta abar) SOZIJETATEEN TALDEko Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak hartzen ditu. Batzordea hilero eta, batez ere, Madrilen biltzen da, baina inoiz bilerak 2 UDALERRIan edo Gasteizen ere egin izan dira. Batzordekideetako batzuek bideokonferentziaz edo telefonoz hartzen dute parte bileretan. Batzordeko kideak arloetako edo proiektuen arduradunak dira, jorratu beharreko gaien arabera. Arloetako arduradunen lanlekuak Bizkaian, Araban eta Madrilen daude.

Parkeekin zerikusia duen guztiari buruzko erabaki estrategikoak hartzeaz gain, Batzordeak haien egoera ere aztertzen eta gainbegiratzen du ikuspegi guztietatik: teknikoa, ekonomiko eta finantzarioa, juridikoa... eta beharrezkoak deritzen erabakiak hartzen ditu. Batzordeak hartzen ditu, beraz, proiektuen inguruko erabaki nagusiak, bai gauzapenari buruzkoak, bai haien jarraipen tekniko zein finantzarioari edo finantzabideari buruzkoak (finantzazio-beharrak, finantzatzeko era -kanpoko nahiz barruko baliabideen bidez- edota, hala badagokio, kanpo-ekarpen finantzarioen edo taldeko beste erakundeen ekarpenen bitartez) bai erabaki bakoitzaren euskarri juridikoaren ingurukoak eta abar.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Alegazioen idazkian erakundeak aurkeztutako kontratuez jarduten da, lehenik eta behin 2005eko azaroaren 28an 4 ERAKUNDEAREkin izenpetutako errentamendu-kontratuaz, zeinaren bidez zerbitzu hauek eman ziren: ikerketaren sustapena, bideragarritasun-plana, ikerlanak eta proiektuak, baimenen eta lizentzien izapidegintza, proiektuaren kudeaketa eta zuzendaritza-lana eta proiektuaren administrazioa hura abian jarri arte. Kontratua Zuzenbidezko arbitrajepean jarri zen Bilboko Abokatuen Elkargoko dekanoren aurrean. Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazten du administrazio-zereginak zerbitzu horietako osagai txiki bat baino ez direla. Zerbitzuok emateko, SOZIJETATEEN TALDEAK Kudeaketaren Kontrol Sail bat du, beste zeregin batzuek arduratzeaz gain kontabilitate-idazpenak sartzen dituen sistema informatiko integratu baten bitartez. Sistemarako sarbidea duten pertsonak 2 UDALERRIAN, Madrilen eta Nafarroan daude, eta SOZIJETATEEN TALDEKO enpresetako enplegatuak dira.

- Halaber, idazkian aipatzen dira, batetik, "giltza eskura" kontratuak, helburu zutenak parke eolikoan aerosorgailuak martxan jartzea eta parkeko instalazioak (aerosorgailuak izan ezik) eraikitzea, eta bestetik, erakundeari parkea eraikiko den lursailen gaineko eskubideak ematen dizkieten kontratuak. Hala, bada, parkea martxan jarri arte haren kudeaketa-lan guztiez 4 ERAKUNDEA arduratu da, eta berau xurgatua izan ondoren, 2 ERAKUNDEA.

6. Bizkaiko Foru Ogasunaren ikuskapen-eginbidea, 2010eko abenduaren 16koa, paragrafo honekin amaitzen da:

"4 IZEN-ABIZENAK(e)k, oraingo honen aurretik 1 ERAKUNDEARI irekitako beste eginbideen ere sinatzaile izanak, adierazten du eginbide honetan aipatzen diren egitateak direla 1 ERAKUNDE erakundeari benetan dagozkionak, eta berak egindako eta aurreko beste Eginbideetan jasotako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

adierazpenak ez direla kontuan hartu behar baldin eta haietan ageri diren egitateak ez badatoz bat oraingo Eginbide honetan jasotako egitateekin”.

2013ko urtarrilaren 16ko alegazio-idazkian Bizkaiko Foru Aldundiak ohartzen duenaren arabera (egitatezko aurrekarietako 22. paragrafoa, 9. or.), “aipatzekoa da honako hau sinatu zen egun berean beste erakunde batzuei buruzko beste eginbide batzuk ere sinatu zirela, 4 IZEN-ABIZENekin sinatu ere, eta eginbide horietako galderak elkarren antzeko samarrak izan bide zirela”.

Aipatutako idazkiko 1. Zuzenbidezko Oinarrian Bizkaiko Foru Aldundiak beste behin azpimarratzen du soilik hartu behar direla aintzat Foru Ogasuneko Ikuskaritzaren "1 ERAKUNDEAREN EGINBIDEA" izenekoan (lehenago aipatua) jasotako egitateak, zeren 4 IZEN-ABIZENAK(e)k EZAAREN eginbidea sinatu zuen egun berean -EZAak 2010eko ekainaren 21ean 2 HELBIDEA helbidean egindako eginbideaz ari da- pertsona horrek berak beste erakunde batzuei buruzko eginbide gehiago ere sinatu baitzituen, eta -gaineratzen du- “horrexek eragin ditu, hain zuzen ere, akatsak eta nahasarazi ditu berez desberdinak diren espedienteak zein pertsonak, bai fisikoak eta bai juridikoak”. Aurrerago, adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiak “argi dagoela, halaxe ondorioztatzen baita 1 ERAKUNDEAREN EGINBIDEA eginbidean jasotako egitateetatik, 4 IZEN-ABIZENAK(e)k hutsak egin zituela, eta horren arrazoia izan zela modu orokorrean ezagutzen zuela taldearen funtzionamendua, baina ez zituen zehatz eta xehetasunez ezagutzen, aldiz, 1 ERAKUNDEAREN inguruko egitateak”.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2. Zuzenbidezko Oinarrian dioenez,

“ondorioztatzen da [EZAaz ari da, zalantzarik gabe; cfr. 2. Zuzenbidezko Oinarria, 2. paragrafoa, 10. or.] 1 ERAKUNDEAK Bizkaiko Lurralde Historikora aldatu zuela bere zerga-egoitza berau erakundearen benetako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

egoerara 'egokitzeko', eta ondorioztapen horrek eragin dio, hain zuzen ere, nahasmena EZAari, zeren erakundearen zerga- eta sozietate-egoitzak zer tokitan eta lurraldetan dauden zehazteko beharrezkoa baita kasuko egitateak xehe-xehe aztertzea. Aztertzen badira EZAaren txosteneko egitateak (zeinetaz idazbidezko ebazpena eman baitzuten bai Arbitraje Batzordeak bai AGk), eta 1 ERAKUNDEAREN inguruko egitateak, soilik esan daiteke bigarren horiek eta aipatutako organismoek orduan ebazitakoak desberdinak direla, eta horrenbestez, ez dagoela, inondik ere, inolako ondoriotara iristerik ez badira zehatz-mehatz aztertzen hizpide dugun espedientearen gaineko inguruabarrak”.

7. Bizkaiko Aldundiaren alegazio-idazkiko 3. Zuzenbidezko Oinarrian Foru Erakundeak aurka egiten die haren ustez EZAaren hutsak diren baieztapenei, jarraian laburbiltzen den moduan:

- 1 ERAKUNDEAREN administratzaile eta bazkide bakarraren ordezkaria ez da 4 IZEN-ABIZENAK, 2 IZEN-ABIZENAK baizik.
- Era berean, EZAak eginbidea ireki zuen unean 4 IZEN-ABIZENAK ez zen erakundearen ahalordeduna, eta, beraz, ezin da pertsona hori erakundearen ordezkari baimenduntzat jo.
- 4 IZEN-ABIZENAK(e)k eginbideetan egindako adierazpenek Bizkaiko Foru Ogasunak 2010eko abenduaren 16an egindako eginbidekoak gezurtatzen dituzten kasuetan ez dira aintzat hartzekotzat jo beharko.
- Egindako fakturei dagokienez, 4 IZEN-ABIZENAK(e)k egitezko oker bat izan zuen, aztertzen diren urteetan erakundeak ez baitzuen hirugarrenentzako faktura zekarkeen jarduerarik izan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Jasotako fakturak erakundearen sozietate- eta zerga-egoitzara bidaliak ziren, eta haietako asko Madrilen zaintzen ziren, hantxe egiten baitzuen landa-lana erakundearen kanpoko kontu-auditoreak.

- SOZIETATEEN TALDEak darabilen kontabilitate-sistema integratua dela medio, kontabilitate-idazpen bat egin orduko BEZaren liburuak automatikoki elikatzen dira; liburuak, beraz, kontabilitate-idazpenak txertatzeko baimena dutenak dauden tokian egiten dira.

- EZAk egiakotzat jo arren 4 IZEN-ABIZENAK(e)k banku-kontuaz adierazitakoa, eginbidean pertsona horrek ez zuen hala zenik baietsi, hala uste zuela baizik.

4. Zuzenbidezko Oinarrian Bizkaiko Foru Aldundiak jarraian zerrendatzen diren oharpenak egiten ditu EZAren txostenean ageri diren baieztapenez (Aldundiak zehatzago ez identifikatu arren, badirudi delako txosten hori EZAren Euskadiko Ordezkaritza Bereziak 2010eko irailaren 24an egindakoa dela):

- Ez dago, benetan, "A sozietate"rik, nahiz eta, txostenaren arabera, 4 ERAKUNDEAren Galiziako ordezkariak delako sozietate hura aipatu esanez haren kudeaketa eta zuzendaritza ez zirela A Coruñan egiten.

- 2 IZEN-ABIZENAK(e)k finantziazio-kontratuak sinatu arren horrek ez du esan nahi eragiketok pertsona horren erabakia izan zirenik, egiatan erabakitzailea beste bat izan baitzen, zehazki SOZIETATEEN TALDEko Parkeen Sustapen eta Salmentarako Saileko Batzorde Exekutiboa.

- Gauza bera gertatzen da inbertsio-erabakiaren kasuan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Ulegarria da erosketa-eskaeren ereduak 4 ERAKUNDEAK eta 2 ERAKUNDEAK erabiltzen zituzten berberak izatea, zeren, zerbitzuen errentamendu-kontratuan hala ezarrita, sustapen- eta eraikuntza-aldian bi erakunde horiek beroriek arduratzen baitziren 1 ERAKUNDEAREN kudeaketaz eta zuzendaritzaz.

8. Alegazioen idazki bereko 5. Zuzenbidezko Oinarrian Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazten du kontuan hartu behar dela aztergai ditugun urteetan erakundeak ez zuela artean inolako jarduerarik hasi, soilik baitzegoen parke aerosortzaile bat sustatzeko eta eraikitzeko fasean, eta -gaineratzen du- “ezaguna izan arren zer irizpideri eutsi dieten Arbitraje Batzordeak eta Auzitegi Gorenak lehenaren Ebazpenetan eta bigarrenaren Epaietan negozioen kudeaketa administratiboaren eta zuzendaritzaren kontzeptuen inguruan, azpimarratu nahi dugu erakundearen jarduerak parkearen sustapen- eta eraikuntza-aldiak iraun bitartean zeukan berezitasuna...”.

Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez, “negozioen kudeaketa administratiboan eta zuzendaritzan kontabilitate hutsaren alderdiak pisu txiki samarra du parkearen sustapen- eta eraikuntza-aldiko administrazioaren elementu teknikoan aldean (inbertitzeko erabakiak, zer lurraldetan inbertitu, zer lursail eskuratu, lizentziak, baimenak, eraikuntza eta abar), eta horregatik, berebiziko garrantzia du parke eoliko bat eraikitzeko faseen ezagutzak, horrela baloratu ahalko baita zenbaterainoko garrantzia duten haietako bakoitzean kudeaketa- eta zuzendaritza-zereginak”. Ondoren, azaltzen du idazkian zertan dautzan aipatutako faseak, guztira honako hauek hain zuzen:

- Sustapena: fase honetakoak dira kokalekuak aukeratzeko lanak, haizearen balizko indarraren azterketa, lizentzia-eskaerak, egikaritzea-proiektua, bideragarritasun-plana eta abar. Fase honetan negozioaren kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza 6 IZEN-ABIZENAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

kudeatzailearen ardura izan ziren gehienbat, eta horren lanlekua erakundearen sozietate-egoitzan bertan zegoen, “fase hau burutzeko kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak aipatutako 6 IZEN-ABIZENAK(e)k egin baitzituen, eta harekin bat, 4 ERAKUNDEA/2 ERAKUNDEAren Galiziako Ordezkaritzako pertsonalak”.

- Eraikuntza.

- Jarduketa eta mantentze-lana.

Bizkaiko Foru Aldundiaren irudiko, “kontuan izanik parkea sustatu eta eraiki bitarteko kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak 4 ERAKUNDEA/2 ERAKUNDEAren Galiziako langileek egiten dituztela, zeregin horiei erreparatu behar zaie, hain zuzen, zerga-egoitza non dagoen jakiteko, zeren lan horiek izanik erakundearen jarduera bakarra pentsatzekoa baita erakundearen zerga-egoitza lurralde erkidean dagoela, 4 ERAKUNDEA/2 ERAKUNDEAren Galiziako pertsonalak egiten ditu-eta sustapenarekin eta eraikuntzarekin zerikusia duten erakundearen administrazio-zeregin guztiak”.

9. Alegazioen idazkiko 6. Zuzenbidezko Oinarrian Bizkaiko Foru Aldundiak gogora ekartzen du zer irizpide ezarri zituen 22. artikuluan Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak -urriaren 15eko 2631/1982 Errege Dekretuak onetsia- erakundeen negozioak non dauden zentralizaturik zehazteko, zeren aipatutako araua indarrean egon ez arren, Auzitegi Gorenak esanguratsutzat jo baitzituen 2010eko martxoaren 12ko eta ekainaren 16ko epaietan. Erakundeak behar den adinako kopuruan izan behar dituen administratzaile edo kudeatzaileen zerga-egoitzari buruzko irizpideari dagokionez, kasu honetan SOZIETATEEN TALDEko enpleguak direnez Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz ez da bakarrik kontuan hartu behar zerga-egoitza, baita haien lantokia dagoen lekua ere baizik. Dagokigun kasuan erakundearen administratzaile bakarrak, 2

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ERAKUNDEAK alegia, Bizkaira aldatu arte -2010aren erdialdean- Arabako Lurralde Historikoan eduki zuen zerga-egoitza. Erakunde horren ordezkari zen 2 IZEN-ABIZENAK(e)n lantokia Araban zegoen.

Erakundearen kontratuak egin ohi diren bulegoari buruzko irizpideari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazten du (7. Z.O.) zergapekoak aurkeztutako kontratuetatik bat 2 UDALERRIAN egin zela, eta gainerakoak lurralde erkidean (1 UDALERRIA edo Madril), eta 2 IZEN-ABIZENAK(e)k sinatu zituela, erakundearen administratzaile bakarraren ordezkari gisa jardunez.

10. Alegazio-idazkian baliatzen dituen gainerako Zuzenbidezko Oinarrietan Bizkaiko Foru Aldundiak honako elementu hauetaz dihardu:

- Erakundearen gainerako ahalordedunak: 2009ko urriaren 23ra arte erakundearen ahalordedunetatik bik Araban zeukaten lanlekua, eta beste bik lurralde erkidean. Une hartatik aurrera, hiru ahalordedunek Araban izan zuten lanlekua, batek Nafarroan eta bik lurralde erkidean.
- Erakundearen sozietate-egoitzan Akziodunen Batzarrak egiten ziren, bertan zeuden kontabilitate-liburuak, behar bezala legeztaturik, eta toki berean jasotzen ziren bai fakturak bai erakundearen gainerako korrespondentzia ere. Kontabilitate-agiriei eta -frogagiriei dagokienez, haietako batzuk Madrilen artxibatzen ziren, bertan egiten baitzuen landa-lana kanpoko kontu-auditoreak.
- Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboaren jarduera eta eginkizunak gogoratzuz, ohartarazten du idazkian organo horren bilerak Madrilen egin ohi direla, bereziki azpimarragarritzat jotzen duen datu bat hori.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Aipatzen da idazkian SOZietateen Taldearen kontabilitate-sistema integratua, eta kontabilitate-idazpenak sartzeko baimena duen pertsonala hainbat lurraldetan banatuta dagoela fisikoki. Halaber, garrantzi handikoa iruditzen zaio, aurrekoarekin lotuta, Saileko arduraduna, kontabilitate-eragiketa guztiei oniritzia eman behar diena, hain zuzen, 5 IZEN-ABIZENAK dela, eta hura baino lehenago, 8 IZEN-ABIZENAK izan zela, eta batak zein besteak Madrileko erdialdean egiten zutela beren lana.

- BEZaren liburuak automatikoki osatzen dira, kontabilitate-idazpenetan oinarriturik.

- Taldearen inbertsio-erabakiak Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak hartzen ditu eta Diruzaintza Sailak betetzen ditu, eta gaur egun bigarren organo horren arduradunak Madrilen du lanlekua.

- Erabaki estrategikoak aipatutako Batzordeak hartzen ditu. Zuzendaritza- eta gainbegiratze-jardueren ardura dutenek -2 IZEN-ABIZENAK, 9 IZEN-ABIZENAK eta 6 IZEN-ABIZENAK- lanlekua Araban, Toledon eta Galizian dute, hurrenez hurren.

- Banku-kontuari dagokionez, esanguratsua da Diruzaintzaren arduradunak Madrilen izatea lanlekua.

- Erakundearen ibilgetua lurralde erkidean dago.

- Erakundearen sozietate- eta zerga-egoitzak Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea SOZietateen Taldearen birmoldaketa baten ondorio izan zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

11. Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen idazkia jarraian laburbiltzen diren ondorioekin amaitzen da:

1. Azpimarratzekoa da erakundearen zerga-egoitzaren inguruko desadostasuna garrantzizko gai bilakatu zela erakundeek ustiapen-jarduerari ekin ziotenean. Ordura arte, BEZa kudeatu, likidatu eta egiaztatzeko eskumena zerga-egoitzaren toki bereko Administrazioak zuen. Parkea sustapen- eta eraikuntza-aldian egonik, erakundeak BEZ-itzulketa eska diezaioke bere zerga-egoitzako Administrazioari, BEZaren kuota handiak jasan baititu. Ustiapena hasiz geroztik, jasandako BEZaren kuotak oso txikiak dira, eta parkeek jasanarazten duten BEZa, ordea, handi samarra da. Idazkian ondorioztatzen denaren arabera,

“kontuan harturik ia parke eoliko guztiek Lurralde Erkidean dituztela instalazioak, gehienetan haien eragiketen tamaina 6/7 milioi eurotik gorakoak izaten direla, eragiketa guztiak instalazioak dauden lurraldean egiten dituztela edota haien zerga-egoitza Lurralde Erkidera lekualdatu dela, zerga hori ordainarazteko eskumena azken lurralde horretako Administrazioari dagokio.

EZAAREN asmoa onartuz gero, bada, parkearen ustiapena hasi arte eraikuntzagatik eta ustiapenagatik [sic] jasandako kuota guztiak BFAK itzuli beharko litzuke, baina ustiapen-jarduera hasiz geroztik, aldiz, BEZa osorik Lurralde Erkidean sortu eta ordainduko litzateke.

Kontuan izan behar da 1 ERAKUNDEAK dagoeneko hasi duela parke eolikoaren ustiapen-jarduera, eta parkearen jabea dela”.

2. “Kontuan izan beharko litzateke erakundearen jarduera sustapena eta eraikuntza dela, oraindik ez dio-eta ekin parke eolikoa ustiatzeari [sic.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Bistan da baieztapen honetan aurre-aurreko paragrafoaren aurkakoa adierazten dela; ulertu behar da, beraz, zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatu aurreko aldiaz ari dela]. Horiek horrela -gaineratzen da alegazioen idazkian-, honako hauetaz ohartarazi beharra dago:

- Estrategiarekin, finantziazioarekin eta inbertsioekin zerikusia duten erabakiak hartzen dituen organoak, hots, Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak, Madrilen egiten ditu bilera gehienak.
- Egunerokoan, proiektuaren gaineko zuzendaritza-lanaz 2 ERAKUNDEAren Galiziako talde teknikoa arduratzen da.
- Liburuak sozietate-egoitzan daude; toki berean egiten dira Batzarrak eta jasotzen dira fakturak; kontabilitate-agirietako asko Madrilen artxibatzen dira eta abar.

3. Txosten honetan egiaztatu denez, negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza-lana lurralde erkidean gauzatzen dira gehienbat”.

4. Zerga-egoitza A Coruña ez dagoela irizten bada aintzat hartu ez direlako sustapen- eta eraikuntza-aldian Ordezkaritzan egindako lanak, zerga-egoitza lurralde erkidean dagoela jo behar da, horretarako arrazoia izanik Madrilgo 3 HELBIDEAn egiten diren jarduerak.

5. Egia izanik lurraldeetako batean ere ez direla betetzen 1982ko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduak 22. artikuluan ezartzen dituen eskakizun guztiak, aukera bat liteke Ekonomi Itunera jo eta haren 43.Lau.b artikuluan aurreikusten den hondar-irizpidea aplikatuz,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

iriztea erakundearen zerga-egoitza lurralde erkidean dagoela, ibilgetu guztia Galizian edukitzeagatik.

12. Aurkeztu zuen bigarren alegazio-idazkian, 2013ko apirilaren 8koan, espedientea dagoeneko alderdien eskura jarririk zegoelarik, Bizkaiko Foru Aldundiak bere lehenagoko alegazio berei eutsi zien.

13. Espedientea alderdiei helarazteko izapidean bertan 3 ERAKUNDEAK, 1 ERAKUNDEAREN ondorengo berau, alegazioak aurkeztu zituen 2013ko apirilaren 29ko data duen idazki baten bidez. Idazkian adierazten duenez, berretsi egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Zerga Ikuskaritzaren aurrean 1 ERAKUNDEAK sinatutako eginbideko adierazpenak, 2010eko abenduaren 16koak, azalduz “[adierazpen horiek] zuzentzen dituztela, neurri batean, 2010eko ekainaren 21ean 1 ERAKUNDEKO zenbait ordezkari 2 UDALERRIAN eta 1 UDALERRIAN sinatutako eginbideetako egitateak”. Ondoren, azaltzen du zer ondorioztatzen den, haren iritziz, aipatutako dokumentutik.

14. EZAAK alegazio gehiago aurkeztu zituen 2013ko apirilaren 29ko idazki batean. Alegazioetan berretsi egiten zituen gatazka planteatzeko idazkian adierazitakoak eta horiekin batera planteatutako asmoa, jarraian laburbiltzen diren argudioak mahairatuz Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen aurka:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez BEZAREN ordainarazpenean izango liratekeen ondorioei dagokienez, adierazten du bereizi egin behar direla zerga-egoitza eta tributu baten ordainarazpenaren gorabeherak: “zerga-egoitza halako edo halako da, baina bakarra, eta erakundearen benetako kudeaketa eta zuzendaritza non gauzatzen diren, horko lurraldean egongo da”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

2. EZAk aurkaratzen duen beste baieztapen baten arabera, zergapekoaren zerga-egoitza lurralde erkidean deklaraturik egon den aldietan haren jarduera bakarria parke eolikoaren sustapena eta eraikuntza izan dira; eguneroko kudeaketa administratiboaz, ordea, 2 ERAKUNDEAK Galizian duen talde teknikoa arduratzen da, eta erabaki estrategikoei dagokienez, SOZIJETATEEN TALDEko Parkeen Sustapen eta Salmenta Saileko Batzorde Exekutiboak hartzen ditu. Horren aurrean EZAk adierazten du “bai doktrina administratiboak bai Arbitraje Batzordeak bere ebazpenetan ezarri dute[la] zerga-egoitza bat bakarrik izan daitekeela, eta zuzendaritza-lanaren eta kudeaketa administratiboaren parte bat lurralde batean kokatzen direnetan ere badagoela zerga-egoitza beste lurralde batean kokatzea baldin eta horretan gauzatzen badira ‘negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza’ deritzon hori ezaugarritzen duten ‘elementu berezigarri gehienak’.”

Erakundeak zerbitzuen errentamendurako kontratu bat sinatu zuen 4 ERAKUNDEAREkin -2008ko ekainean 2 ERAKUNDEAK xurgatua berau-, eta horixe izan zen haren jarduera administratiboa bakarria aztergai dugun denbora-tartean. Hasieran lurralde erkidean deklaraturik zegoen zerga-egoitzan lanak bi eratakoak dira: batetik teknikoak, nahiko desberdinak Ekonomia Ituneko 43. artikuluan aipatzen diren zuzendaritzakoekin alderatuz gero, eta bestetik, kudeaketa eta administrazioak, kasu honetan jasotzen ziren korrespondentzia, jakinarazpenak eta fakturak helbide batean zentralizatzea, ondoren 2 UDALERRIra bidaltzeko, hortxe egiten baitzen erakundearen benetako kudeaketa administratiboa.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

EZAAk dioenez, ez SOZIJETATEEN TALDEko enplegatuen eta ordezkarien adierazpenetan ez Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioetan eurretan

“ez da zantzu txikiarik ere ageri pentsarazten duenik deklaraturako zerga-egoitza lurralde erkideetik Bizkaira eramatearen ondorioz halako aldaketa bat izan dela erakundearen eguneroko funtzionamenduan non ondorioztatzen den aldatu dela haren kudeaketa administratiboaren kokalekua ere, eta horrek baietsi baino ez du egiten zerga-egoitza beste toki batera eraman dela erakundearen egoera juridiko fiskala haren benetako egoera ekonomikora egokitzeke.

Benetako egoera ekonomiko horren funtsa da 4 ERAKUNDEA/2 ERAKUNDEAK, zergapekoaren administratzaile bakarra denak, Bizkaiko 2 UDALERRIAN duela zerga-egoitza, eta horren arrazoia dela bertan dauzkala SOZIJETATEEN TALDEAREN barruan dagokion zeregina zentralizatzeko behar duen azpiegitura, zeregin hori izanik administrazio- eta kudeaketa-zerbitzuak eskaintzea parke eoliken sustapenean diharduten baina jarduera hori berez betetzeko adina baliabide material eta pertsonal ez daukaten sozietateei. Azaldutakoagatik, ez dago zalantzarik toki horretan dagoela ‘zentralizaturik, benetan, erakundearen kudeaketa administratiboa’”.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak zalantzazkotzat jotako beste elementu bati dagokionez, hots, aplikagarriak ote diren Arbitraje Batzordearen R1/2008 eta R1/2009 ebazpenak eta Auzitegi Gorenaren 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaiak, EZAAk egitate hauetaz ohartarazten du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

a) 1/2008 eta 2/2008 gatazkak EZAAk planteatu zituen, parke eolikoaren titularrak ziren zenbait sozietatek deklaraturako zerga-egoitza zela eta.

b) Sozietate horiek pertsona bakarreko sozietate anonimo gisa eratu ziren, bazkide eta administratzaile bakarra 2 ERAKUNDEA zutelarik, SOZIETATEEN TALDEaren holding sozietatea berau, hain zuzen ere.

c) Sozietate bakoitzak kasuan kasuko parkeak proiektaturako tokian deklaratu zuen bere zerga-egoitza, nahiz eta egoitza horrek zerga-egoitzei eskatzen zaizkien baldintzetako bat ere ez bete, eta ondorioz, EZAAk gatazkak planteatu zituen Arbitraje Batzordearen aurrean, uste baitzuen sozietateen zerga-egoitzak 2 UDALERRIAN egon behar zuela eraketa-unetik bertatik, hortxe zeudelako kokaturik sozietateen negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza.

d) Sozietateek zerbitzu-errentamendurako kontratuak, instalazioak eraikitzeak, aerosorgailuak martxan jartzekoak eta bestelako kontratuak izenpetzen zituzten SOZIETATEEN TALDEko sozietate espezializatuekin, eta ez zuten ez berezko pertsonalik ez beren jabetzako lokalik ez zuten, berez, batere kudeaketa-gaitasunik ere.

e) Erakundeen zerga-egoitzak deklaraturik zeuden lurraldeetan, 4 ERAKUNDE/2 ERAKUNDEko pertsonalaren zeregina zen, batetik, fakturak, korrespondentzia eta jakinarazpenak jasotzea eta ondoren 2 UDALERRIra bidaltzea, eta, bestetik, zuzendaritzaren erabakiak tokian toki egikaritzea; haien izaera teknikoagatik, azaldutako zereginok "ezin balia daitezke kudeaketa administratibo zentralizatuaren irizpidea argudiatzeko, eta are gutxiago negozioen zuzendaritzari buruzko irizpideari dagokionez".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

EZAAk, bada, honako hau ondorioztatzen du:

“agerikoa da SOZIETATEEN TALDEAK gatazka honen objektua den sozietatearekin darabilen kudeaketa- eta zuzendaritza-moldea koherentea dela -logikoa denez, bestalde- aurreko paragrafoetan deskribatutako ereduarekin, baita kontuan hartzen baditugu ere izandako zenbait aldaketa, ulergarriak taldeak urteotan lortutako profesionalizazio eta espezializazio handiagoagatik, adibidez taldean izandako birmoldaketak, bai juridikoak -4 ERAKUNDEA 2 ERAKUNDEAK xurgatua, holdingaren sozietate buruaren zerga-egoitza Arabatik Bizkaira lekualdatua 2010ean, zergapekoaren beraren zerga-egoitza lekualdatua 2009an-, bai kudeaketakoak -arloak Sail espezializatueta zentralizatuak, fiskalitatea Nafarroan, diruzaintza Madrilan, kontabilitatea 2 UDALERRIAN- baita arlo administratiboari bakarrik eragin diotenak ere -SOZIETATEEN TALDEAN ezarritako kontabilitate-programa integrala-.

Hona arte azaldutakoari erreparatuta, bada, soilik ondoriozta daiteke guztiz aplikagarriak direla, gatazka honetan, bai parke eoliko sozietate titularren zerga-egoitza zehazteko erabili diren irizpideak baita Arbitraje Batzorde horrek emandako eta geroago Auzitegi Gorenak berretsitako 1/2008 eta 1/2009 Ebazpenetako ondorioak ere, nahiz eta horrek ez duen zertan ekarri ondorio horiek besterik gabe eta mekanikoki aplikatuko direnik zergapekoaren kasuan...”.

4. Beste alegazio batean Bizkaiko Foru Aldundiak planteatzen zuenez, onartzen ez bazen erakundearen zerga-egoitza Galizian zegoela, nahiz eta bertan gauzatu parkeko lan teknikoak, egoitza hori lurralde erkidean kokatu beharko zen, lurralde horretan egiten baitziren gainerako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak, edo, “itxiera-mekanismo gisa”, Madrilgo 3 HELBIDEAn, horrelako jarduera gehienek lekua izateagatik. EZAAK ohartarazten du, hartara, Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera sailak eta zuzendaritza-zentroak sakabanatu samar daudela: finantza eta gai juridikoena Madrilen; diruzaintza 2 UDALERRIAN eta Madrilen 2010az geroztik; fiskala Iruñean; Zuzendaritza Nagusia 2 UDALERRIAN eta Madrilen. Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez -jarraitzen du EZAAK-, erabaki estrategikoak hartzen dituen organoa, SOZIJETATEEN TALDEko Parkeen Sustapen eta Salmentarako Saileko Batzorde Exekutiboa, hilean behin biltzen da, Madrilen, edo, noizbehinka, 2 UDALERRIAN edo Gasteizen, eta haren kide gehienek Bizkaian eta Madrilen dute lanlekua.

EZAAK ohartarazten duenez, erakundearen bazkide eta administratzaile bakarra den 2 ERAKUNDEAREN

“enpresa- eta antolakuntza-egiturak bereizgarri du sakabanaturik dagoela denboran zein geografikoki, horretarako arrazoiak izanik erakundea osatzen duten sailen funtzionaltasuna. Sail horiek izaera instrumentala eta betearazlea dute 2 ERAKUNDEAK parke eolikoen inguruan hartzen dituen erabakiekiko. Erabakiak, hain justu, izaera horietakoak dira: inbertsioen egikaritzakoak, juridikoak, finantzarioak, diruzaintzari buruzkoak, kontabilitatekoak eta fiskalak. Aipatutako organoek, arlo funtzionalek osatutako egitura hori dela medio, bigarren mailan jokatzeko dute, lehen mailatik (2 ERAKUNDEA) datozkien erabakiak eta estrategiak aplikatuz”.

Gaineratzen du EZAAK:

“Batzordeari dagokionez, egia bada ere berez beste organo bat baino ez dela taldearen enpresa-egituran, haren izenaren beste osagaiak,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

‘exekutibo’ hitzak alegia, agerian uzten du betetzen duen funtzioa: 2 ERAKUNDEAREN erabakiak betetzea, eta edonola ere, EZAAREN datu-baseetako informazioaren arabera haren kideetako zortzik Bizkaian dute zerga-egoitza.

Zergapekoa SOZIJETATEEN TALDEKO partaide da, eta taldea da, hain zuzen ere, haren sailen bitartez arduratzen dena gatazka honen objektu den erakundearen kudeaketa administratiboaz eta negozioen zuzendaritzaz.

Egia bada ere zergapekoaren kudeaketa administratibo hori funtzionalki eta geografikoki banatuta dagoela 2 ERAKUNDEA osatzen duten sailen artean, ez dago zalantzarik negozioaren egiteko kudeaketa haren bazkide eta administratzaile bakarraren esku dagoela, eta hala egiazaturik dago gatazka planteatzeko idazkian zein alegazio-idazki honetan”.

Baieztape horren alde, EZAAK Euskadiko eta Nafarroako prentsan agertutako zenbait informazio aurkezten ditu, denak argitaratuak 6 ERAKUNDEAK (SOZIJETATEEN TALDEAREN burua) bere sozietate- eta zerga-egoitza Arabatik Bizkaira aldatu zituela eta. Informazio horien arabera erakundeak, lekualdatzea arrazoitzeko, azaldu zuen “zuzendaritzaren, kontabilitatearen eta administrazioaren egitura osoa” 2 UDALERRIAN “dagoela, eta, beraz, sozietate-egoitzak bat etorri behar du enpresaren jardura errealarekin”, gaineratuz “erabaki logikoa” dela, “hantxe baitaude erakundearen jardura eta erabaki-organoak”.

EZAAK aurrekoekin batera aurkeztutako Arabako Batzar Nagusietako Bilkura Egunkariaren orrialde batzuetan (86. zk.ko osoko bilkura, 2010eko ekainaren 7koa) jasota ageri da interpelazio bat, “Ahaldun Nagusiari

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

zuzendua, jakiteko zer ondorio izan dituen 6 ERAKUNDEAREN (SOZIJETATEEN TALDEAREN burua) sozietate-egoitzaren lekualdatzeak Foru Ogasunean eta Arabako industriari". EZAAREN idazkian Ahalduen Nagusiaren erantzunaren pasarte batzuk aipatzen dira, horietan adierazten duelarik, besteak beste, honako hau 6 ERAKUNDEAREN (SOZIJETATEEN TALDEAREN burua) erabakiaz:

"esperotako erabaki bat zen, lehenago edo geroago hartuko zena 2006tik, ikusita urte hartan aeronautikaren dibisioa 3 UDALERRIko teknologia-parkean jarraitzen duen 8 ERAKUNDEARI saldu zitzaioela. Orduan, 6 ERAKUNDEAK (SOZIJETATEEN TALDEAREN burua) ez zuen sozietate-egoitza Gasteizetik eraman, baina han bakarrik jarraitzen zuten bi enplegatuk, bi administrarik zehazki, eta zuzendari guztiak eta gainerako langileak, ordea, 2 UDALERRIAN antolatutako negozio-zentroan zeuden. [...] Urte horietan zergak Arabako Ogasunari ordaindu dizkio, sozietate-egoitzak, eta beraz zerga-egoitzak, Araban jarraitzen baitzuten. Egoera, komatxo artean esanda, gure onerako izan da denbora batez, baina berez, kontraesana ere bazen, logikak berak eta auzitegien epaiek ere esaten digutelako enpresek erabaki-zentroa duten tokian eduki behar dutela helbidea, eta kasu honetan zentroa 2 UDALERRIAN zegoen".

5. Parkeen Sustapen eta Salmentarako Saileko Batzorde Exekutiboak erabaki estrategiko handiak betetzen ditu, baina ez du eskurik hartzen erakundearen negozioen kudeaketa administratiboan eta zuzendaritzan. Zeregin horretaz 2 IZEN-ABIZENAK arduratzen da, administratzaile bakarraren ordezkaria izateagatik, eta Bizkaian du lanlekua. Bera da, EZAAK dioenez, parte hartzen duena sozietatearen bizitzako ekintza garrantzitsuetan sozietatearen beraren ordezkari gisa, eta berak kontrolatzen eta gainbegiratzen du 2 ERAKUNDEAK Galizian

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

duen ordezkartzako kudeatzailearen lana. Lanlekua Bizkaian du, eta EZAAren datu-baseetan ageri denaren arabera, baita zerga-egoitza ere, Bizkaiko Foru Aldundiak dioenez bestela.

6. Bizkaiko Foru Aldundiaren beste egiaztapen bati dagokionez, alegia, EZAAk 2010eko ekainaren 21ean erakundearen 2 HELBIDEA helbidean egindako eginbidean 4 IZEN-ABIZENAK okerreko datuak adierazi zituela orokorki baino ez zuelako ezagutzen taldearen funtzionamendua baina ez zituelako, ordea, zehatz-mehatz ezagutzen 1 ERAKUNDEAREkin zerikusia duten egitateak, EZAAk adierazten du ezin esan daitekeela pertsona horrek erakundearen funtzionamenduaren berririk ez duela, bera baita, hain zuzen ere, erakundeak Bizkaian irekita duen kontu korrante bakarrarekin eragiketak egiteko baimena dutenetako bat.

4 IZEN-ABIZENAK(e)k Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskaritzak 2010eko abenduaren 16an egindako eginbidean adierazi zuenez, hau da, beste eginbide batzuetan egin zituen adierazpenek ez zutela baliorik ordukoarekin bat ez etortzeagatik, gogorarazten du EZAAk mota horretako agiriek Tributuen Lege Orokorraren 107. artikularen arabera duten frogabalioa, eta ohartarazten du adierazpen horiek ezin daitezkeela “eraginik gabekotzat jo baldin eta horretarako arrazoi bakarra bada beste Administrazio baten geroagoko eginbide batean adierazi duela ‘ez direla aintzakotzat hartu behar’.”

15. Arbitraje Batzordearen 1/2008 eta 1/2009 ebazpenetan, biak Auzitegi Gorenak berretsiak 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaietan hurrenez hurren, organo honek iritzi zuen orduko gatazken objektu ziren sozietateen zerga-egoitza ez zegoela beraiek deklaraturako sozietate- eta zerga-egoitzan, zeina kokaturik baitzegoen sozietateen titulartasuneko parke

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>31/2010</i>	<i>R14/2013</i>	<i>2013/07/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen zerga-egoitza</i>

eolikoa zegoen lurralde berean, eta hala irizteko arrazoi funtsezkoena izan zen egoitza hartan egiten ziren jarduerak batik bat teknikoak zirela, parkearen proiektuarekin eta eraikuntzarekin lotuak. Kontrara, zantzu guztiek pentsarazten zuten enpresaren negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza-lana ezaugarritzen zituzten jarduerak SOZIETATEEN TALDEko sozietate batzuek egiten zituztela, eta sozietateok Bizkaian zeuden kokaturik, 2 UDALERRIko 2 HELBIDEAn hain zuzen ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatzen du ebazpenotako ondorioak ez direla beren horretan zabaldu behar honako hau bezalako beste kasu batzuetara, desberdinak baitira, haren ustez, lehengo haiek eta oraingook. Ez du azaltzen bere alegazioetan, haatik, zertan bereizten diren batzuk eta besteak. Oso bestela, gatazka honetako alderdiek argudiatutakoa bere osotasunean baloraturik ondorioztatzen da orain aztergai dugun kasua eta Arbitraje Batzorde honek 1/2008 eta 1/2009 ebazpenetan ebatzitakoak ez direla, funtsean, desberdinak, eta haietan guztietan SOZIETATEEN TALDEAk antolakuntza-egitura bera baliatu duela parkeak "sustatu eta saltzeko", delako egitura horren ezaugarri nagusiak honako hauek direlarik: a) Sozietate bat eratzen da, haren partaidetza osoa Taldearen holding sozietate batek duelarik, eta bigarren horrek, bestalde, parkea dagoen lurraldean du zerga-egoitza; b) Sozietate horrek ("X S.A. IZEN KOMUNekoa") parkea eraikitze eta instalazioetarako prestaketa-lanak egiten ditu, eta horretarako, beharrezkoak diren kontratuak formalizatzen ditu Taldeko enpresa teknologikoekin; c) Parkearen jabetza duen sozietatearen eskualdaketa egiten da, haren kapitala ordezkatzan duten akzioak salduz horretarako.

Berriz erabiltzen da eskema berbera; hau da, "parke eolikoaren sozietateen" sozietate-egintzak eta -eragiketak ez dira izaten sozietate bakoitzari begirakoak, berari egokituak, baizik eta sozietate horietako multzo osoentzat eginak. Haien akzioak saltzen diren arte, "parke eolikoetarako sozietateak"

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

egitura tekniko hutsak baino ez dira, hots, eraikuntzan dauden industria-instalazioak, bakoitzari egokitutako enpresa-kudeaketarik gabeak, zeren mota horretako kudeaketa kolektiboari zuzendua baita, hau da, SOZietateen TALDEko organo zentralak beharrezko pertsonala eta baliabide materialak dituzten tokitik sozietate-multzo osoarentzat prestatua. Aurrekari guztietatik ondorioztatzen denez, toki hori Bizkaiko 2 UDALERRIko 2 HELBIDEA izaten da batik bat.

16. Nahiz eta SOZietateen TALDEaren organo zentral nagusietako batzuk Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egon, Bizkaiko Foru Aldundiak azpimarratzen duen eta EZAak ukatzen ez duen datu bat hain zuzen, horrek ez du aurreko ondorioa ezeztatzen. Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudiko azpimarragarriak dira Parkeen Sustapen eta Salmentarako Saileko Batzorde Exekutiboak dituen funtzioak, bai eta organoak bere bilerak batez ere Madrilen egitea ere. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, aipatutako Batzordeak era guztietako erabaki estrategikoak hartzen ditu parkeetarako: teknikoak, ekonomikoak eta finantzarioak, juridikoak eta abar; EZAaren iritziz, ordea, Batzordeak 2 ERAKUNDEAREN erabakiak egikaritu baino ez du egiten. Horri dagokionez, esan beharra dago gatazka honetan ez dela aztertu SOZietateen TALDEAREN antolakuntza-egitura, eta, ondorioz, Arbitraje Batzorde honek ez daki xehetasunez zein diren gorago aipatutako Batzordearen eginkizunak eta posizioa; ez daki, beraz, organo hori ote den azken buruko erabakiak hartzen dituen parke eolikoei begira, edo, horren orde, organo gehienbat teknikoa den, Taldearen goi-organoen mendekoa, hartara.

Dena den, eta edozein delarik ere Batzorde horren zeregina nahiz Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko organoena, adibidez diruzaintzaz edo zerga-gaiez arduratzen direnena, hori ez da nahikoa ukatzeko SOZietateen TALDEko organo zentralak direla “parke eolikoaren sozietateen” negozioen kudeaketa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

administratiboa eta zuzendaritza daramatenak, enpresentzako erabaki nagusiak hartuz. Ildo horretatik, 2011ko maiatzaren 2an eman genuen R 11/2011 ebazpenean (29/2008, 30/2008, 32/2008, 38/2008, 39/2008 eta 40/2008 espediente metatuak), 13. Zuzenbidezko Oinarrian, ez dugu erabakigarritzat jotzen non egiten diren administrazio-organoen eta bazkideen Batzar Nagusien bilerak. Iritzi horren alde, gogora ekarri genuen Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak 426/2002 errekurtsiaz emandako 7958/2005 epaia, ekainaren 20koa; epaian ezeztatu egin zen errekurtsio bat, aurkaratu egiten zuena Autonomia Erkidegoei Lagatako Estatu Tributuen inguruko Gatazken Arbitraje Batzordeak hartutako erabaki bat, 2002ko apirilaren 4koa, zeinak eraginik gabekotzat jo baitzuen 9 ERAKUNDEAREN Madriletik Bartzelonarako lekualdatzea, nahiz eta konpainiaren exekutibo nagusiak eta kontseilarietako batek Bartzelonan eduki bizilekua eta bertan egin beren jarduera ere. Epai horren aurka kasazio-errekurtsioa (1115/2006) aurkeztu zen, baina Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak ezeztatu egin zuen 2011ko apirilaren 13ko epaian.

Era berean, 2012ko uztailaren 26an eman genuen R 10/2012 ebazpenean (7/2010 espedientea), 7. Zuzenbidezko Oinarrian, adierazi genuen kontabilitatea eta gainerako kudeaketa- eta zuzendaritza-lanak toki desberdinetan eramanagatik egitate horrek ez zuela era erabakigarrian egiaztatzen non zeuden kokaturik erakundeen negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza, eta aintzat hartzekotzat jo genuen erakundeak enpresa- edo sozietate-talde baten partaidea izatea. Orduko hartan (ibidem) adierazi genuen, halaber, negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza ez direla irizpide banaezinak, eta desadostasunik sortuz gero ea bietako zeini heldu behar zaion, lehentasuna eman behar zaiola bigarrenari, jarduera horren eremuan hartzen baitira enpresaren gaineko erabakirik funtsezkoenak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
31/2010	R14/2013	2013/07/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Hona arte azaldutakoan oinarririk, ondorioztatu behar dugu 1 ERAKUNDEA eratu zenetik bertatik haren negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza kokaturik zeudela erakundearen bazkide bakar eta administratzaileak (hasieran 4 ERAKUNDEA eta ondoren haren xurgatzailea, 2 ERAKUNDEA) bere jarduerak egiten zituen tokian. Argi dago toki hori Bizkaiko 2 UDALERRIko 2 HELBIDEA dela, eta ez da beharrezkoa eraikina zehaztea, ez duelako zertan derrigor izan ZZZ zenbakia, erakundearen sozietate- eta zerga-egoitzaren kokalekua izan zena egoitzok Galiziatik Bizkaira aldatu zirenean.

17. Aurreko ondorioagatik, ez da beharrezkoa Ekonomia Itunaren 43.Lau.b artikuluan aurreikusten den irizpide subsidiarioa aplikatzea, hau da, ibilgetuaren balio handiena dagoen tokiari erreparatzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1 ERAKUNDEA (IFZ: LZZZZZZZ) eratu zenetik, haren zerga-egoitza Bizkaiko 2 UDALERRIko 2 HELBIDEAn zegoen.